



Denetarik hipermerkatu merkeenean

■ *Sabin Intxaurraga izan zen atzo Donostiako Emaus gizarte fundazioa ezagutzen*

HIPERMERKATUEN zerrendan sartzen ez bada ere, denetarik aurki daiteke Emausko Traperoetan. Armairuak, aulkiak, jantziak, liburuak salgai... eta piano-rik ere bai, nahi izanez gero. Prezioak, bitxiak. Eskariaren eta eskaintzaren araberakoak, bazterrean geratuz doazen produktuak merkatuz baitoaz pixkanaka.

Era guztietako erosleak ditu, gainera, Emausek. Azken batean, diru gutxirekin gauza onak eros baitaitezke. Noski, begira ibiltzeko pazientzia eta denbora apur bat behar da, hori bai. Atzo, esaterako, Sabin Intxaurraga izan zen bisitan, EAEko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburua. Emauseko ordezkariak eta langileak izan zituen lagun. Eraikin osoan aritu zen, zer egiten den, zer saltzen den begira. Lana beste era bat egiteko moduak bultzatuta joan zen hara bisitan. Izan ere, Emaus merke eros daitekeen lekua baino zerbait gehiago baita.

Gizartean integratzeko bide
 Gizarte fundazio bat da, eta gizartearen bazterrean geratzen diren pertsonen lan munduan eta gizartean integratzeko aukerak ematea du helburu. Horretarako, gizarteko «pertsona arruntek» zaborretara botatzen dituzten gau-



Intxaurragak arretaz jarraitu zituen Emausen egiten dituzten lan guztiak eta eredugarritzat jo zuen ekimen hori.

za baliotsuez baliatzen dira, horiek hartu, egokitu, konpondu, eraldatu eta salmentan jartzeko. Horretarako, 30 langile inguru ditu. Etxeetatik altzariak, arropak eta bestelakoak kendu nahi dituztenek Emausera hots egin, eta goizeko 08:00etan ateratzen dira egunero, etxe horietako soberakinak jasotzera. Emausera eramaten dituztenean, konpontzeko daudenak alde batera eramaten dituzte, altzari handiak lehen solairura, txikiagoak bigarrenera, eta jantziak azken solairura. Hautaketa gela bat ere badago; hantxe, emakume bat, balio duena eta ez duena bereizten. Jarduera amaigabea da, egunero sartzen baitira gauzak. Zenbat gauza kontsumitzen eta botatzen ditugun jakiteko adierazle ona da Emaus, lan eskaintza egiten duen kooperatiba bat ere bai. Lan horretarako ez da lizentziadun izan beharrik. Erbesteratu, dro-

gazale, etxerik gabeko, familiarekin zailtasunak izandako adin txikiko, preso ohi eta ezindu psikiko eta fisikoentzat lan eta abarrentzat integrazio aukera da Emaus. Lanerako eskaintzaz gain, hainbat programa eskaintzen ditu asmo horrekin.

Intxaurraga jarduera hori ezagutzera joan zen atzo hara. Hauxe esan zuen bisitaldia amaitu ostean: «Bazterketa, neurri handi batean, konponduta geratzen da lan munduan aukera izanez gero, eta gure laguntza eskaintzera etorri gara». Hala, horrelako jarduerak kontuan hartu behar direla gaineratu zuen.

Intxaurraga hara eta hona ibili zen atzoko bisitaldian, baina ez genuen ezertxo ere erosten ikusi. Hamaika kazetari inguruan izanda, nahiago izan zuen, seguruenik, erosketa beste baterako utzi.

Amagoia Mujika
 DONOSTIA

kasu!

► Preserbatiboak lapurtu eta etxera

Udaltzainek 39 urteko gizon bat atxilotu zuten atzo Iruñean, preserbatibo makina bat lapurtzeagatik. Udaltzainek aurkitu zuten, makinarekin batera, lapurreta egin zuen inguruan bertan gordeta. Lehenengo aldia balitz, beharrak bultzatuta ostuko zuela pentsatuko luke edonork. Baina ez: antzeko lapurretak 29 alditan egin omen ditu, ez gutxiago, ez gehiago.

► Eskolako deia iratzargailu

Erresuma Batuko eskola bat sistema berria erabiltzen hasi da ikasleak eskolara garaiz iristeko. Telefonoz hots egiten diete eskolan sartu baino ordubete lehenago, garaiz halduko direla ziurtatzeko. Hala ere, oraingoz ez dute sistemarik asmatu deia entzun eta berriz ere ohera sartzen direnen ikasleentzat.

► Epaille eta galtzontzilo lapurtzaile

Sistema legegileak huts egiten du maiz. Orain, hutsa baino gehiago, zulo handia egin du Argentinako epaille batek. Legea betetzen ez duena epaitzen duen epaille hori galtzontzilo lapurtzen hasi ez da, ba! Oporretan zela, abentura irrikaz nonbait, galtzontzilo pareta, poltsa pila bat eta eskuargi bat eramane zituen denda bate-tik. Berehala epaituko dute, eta denbora puska batean lapurrak juzgatzeko lizentziarik ez du izango.

Zenbat gauza

kontsumitzen eta

botatzen ditugun jakiteko

adierazle ona da Emaus,

lan eskaintza egiten duen

kooperatiba bat ere bai